



Ikastaro honek **elkarrizketa bat diseinatzeko eta gidatzeko gakoak** eskaintzen ditu, laguntzen ditugun **personengan rol aktiboa eta benetako eraldaketa** sustatzeko. Akonpainamendu harremanean **paradigma aldatzea** planteatzen du, **gogoetarako gaitasuna**, funtzionamendu pertsonal, familiar eta/edo sozialeko **dinamika berriak sortzeko** ardatz gisa erabiliz, **irtenbide partekatuak, sendoak eta eraginkorrak** eraikitzeko ikuspegi batekin.

Elkarrizketa-eredu honek **prozesuaren ebaluazioa ardatz gisa planteatzen du**, egindako **aurrerapenak ikustarazteko** eta finkatzeko eta bizitzako testuinguru guztietara transferitu daitezkeen **aldaketa errealak** sortzeko.

NORI ZUZENDUA?

Esku-hartze sozialeko eta psikologiako profesionalak, eta osasun- eta hezkuntza-arlokoak

Prestakuntza honek, eremu horietako profesionalak eskaintzen dizkie, adingabeen, gazteen, helduen eta/edo familien akonpainamenduan jarduteko estrategiak eskainiz. Era berean, beraien eraldaketaren protagonista izatea bilatzen du, autonomia sustatuz eta benetako aldaketak bultzatuz.

Más Información e Inscripción:

www.agintzari.com/formacion | formacion@bogankoop.com | tlf.: 94.474.52.55

HELBURUAK

- Akonpainamendu-harremanean profesionalak duen posizionamenduari buruz hausnartzea.
- Elkarrizketa eraldatzaile baten oinarriak eta printzipioak ezagutzea.
- Pertsonak beren aldaketa-prozesuan aktiboki inplikatzeko estrategiak garatzea.
- Eraldaketa oztopatzen duten dinamika pertsonalak identifikatzea eta jorratzea.
- Hausnarketarako gaitasuna sustatzeko eta aldaketarako ekintza-plan bat elkarrekin eraikitzeke tresnak eskaintzea.
- Prozesua eta aurrerapenak ebaluatzeko gakoak ematea.

EDUKIAK

- Profesionala aldaketaren laguntzaile eta gidari: posizionamendua eta trebetasun interpertsonalak.
- Elkarrizketa eraldatzaile baten paradigma eta printzipioak.
- Motibazioa, inplikazio aktiboa eta helburuen ezarpena.
- Aldaketarekiko erresistentzia, joera kognitiboak eta judizioak.
- Hausnarketa-lana: gida-galderak eta erabakien hartzea.
- Irtenbide partekatutak bilatzea eta ekintza-plan bat sortzea.
- Komunikazio asertibo eta eraginkorrerako gakoak.
- Aurrerapenen ebaluazioa eta jarraipena.
- Kasu praktikoetan aplikatzen.

METODOLOGIA

Prestakuntzaren garapenak ezagutzaren transmisioa tartekatzen du ekarpen teorikoen bidez eta metodologia **praktiko, aktibo eta parte-hartzailearen bidez**. **Gogoeta pertsonala eta taldekoa sustatuko da eta baita elkarlaneko ikaskuntza** ere.

Prestakuntza **online egingo da Gela birtualaren** bidez eta taldea **gutxienez 8 eta gehienez 20 pertsonen** osatuko dute.

Ikastaroaren amaieran, partaidetza-ziurtagiria eta landutako edukiak barne hartzen dituen materiala helaraziko zaie.



Parte-hartzea eta ikaskuntza esanguratsua sustatzeko, kamera eta mikrofonoa **aktibatzea** gomendatzen da.

IRAKASLEA

Elizabeth Mendizabal Esteban familia eta bikoteko psikologo eta psikoterapeuta, EVNTF (Familia Terapiako Euskal Eskola). Banakako terapia sistemikoan espezializatutako prestakuntza dauka.



2009. urteaz geroztik, Bizkaiko udalerrri desberdinetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan psikologo gisa egiten du lan, adingabeak babesteko arloan, balorazio eta esku-hartze lana eginez. Bestalde, Agintzari GEKEren Arlobi-ADOPTIA Arreta Psikosoziako Zerbitzuko psikoterapeuta da, adopzioan eta familia-harreran espezialista gisa lan egiten duenak.

Berritze Programako talde terapeutikoan parte hartu du, Ukrainako gudako familia harreragileei eta errefuxiatuei laguntza psikosoziala eskainiz, eta [Betirako](#) zerbitzuan, dolu-prozesuetan arreta psikologikoa eskainiz.

Esperientzia dauka irakasleei eta esku-hartze sozialeko profesionalei zuzendutako prestakuntzan, adingabeen babesaren, adopzioaren eta familia harreraren arloan. Ikasleentzako eta familientzako tailerrak dinamizatzen ere esperientzia luzea dauka.